

**Etika Publikorako Batzordea**

**Aztergaia: 13/2023**

**ERABAKIA, (...)K, (...)K, (...) SAILAK ESLEITUTAKO BI KONTRATU TXIKIRI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.**

1.- Etika Publikorako Batzordearen (EPB) posta elektronikoan, (...) (...)k bidalitako mezu elektroniko bat jaso da. Bertan, kontsulta bat egiten dio Batzorde honi, (...) Sailak egindako bi kontratu txikiren esleipenari buruz.

2.- Idazkian adierazten duenez, (...) Sailak bi kontratu txiki esleitu zizkion enpresa bati, zeinetan (...) ahalordedun izan baitzen, enpresa horretan zuen erantzukizuna utzi zuenetik bi urte igaro gabe.

Bere mezuan adierazten du, halaber, (...) Sailak enpresa berari esleitutako beste hiru lizitazio ere egin dituela, baina uste du irregulartasunik ez dela egon kasu horietan, prozedura irekiaren bidez bideratu baitziren.

3- Egindako kontsultan, Etika Publikorako Batzorde honi eskatzen dio azter dezala (...) Sailak (...) enpresari –zeinetan (...) ahalordedun izan baitzen– egindako esleipenak arau-haustea diren, eta ebatz dezala, halaber, gertakari horietan parte hartu duen pertsonaren aurka neurriak hartu behar diren, edo, zuhurtasun-printzipioan oinarrituta, Sailak neurriren bat aplikatu behar duen datozen urteetan enpresa horrekin egin litzakeen kontratuetan.

4.- Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eginkizuna da EAEko Administrazio eta haren sektore publikoko kargu publikodunek eta bestelako instantziek Etika eta Jokabide Kodearen aplikazioari buruz egiten dituzten kontsultak ebatzea.

5.- Horiek horrela, Etika Publikorako Batzorde honek, Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez.

**ERABAKIA:**

**I.- Aurrekariak**

1.- Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, 2013ko maiatzaren 28an, eta 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota dago egun. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kode hori: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan zuten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatu kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, eta Jaurlaritzaren irudi instituzionala gorde, haren eraginkortasuna sendotu eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza ez dadin gutxitu ahalegintzea.

2.- Bestalde, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da eginkizun publikoak dituztenek betebeharrak etikoak nahiz sozialak bete ditzatela; izan ere, lege horren asmoa da gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa babestea, bai eta bizitza politikoan duen jardunaren gardentasuna zaintzea ere.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu bati buruzkoa da, hots, kargu publikodunen jokabide-kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzeari buruzkoa.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren ereduak zein den azaltzea edo ezagutaraztea; aitzitik, testu arauemaile bat ere bada, zeinak, legearen indarrarekin, karguari dagokion funtzio publikoa betetzean atxiki beharreko betebeharrak ezartzen baititu.

Illo horretan, Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) bere egiten du kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak arautzen dituen 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia.

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko asmoz. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean jasota dago.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; onestasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredu-garritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak jokabide, jarrera eta portaeren katalogo zabal bat jasotzen ditu, eta haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du Etika Publikorako Batzorde honek, erantzun egokia emateko borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodea eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten hirugarrenek helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuko lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzeei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea».

## **II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA**

1.- Kontsulta honen egileak aurretik egindako beste baten kariatara adierazi genuenez, adierazi behar dugu, batzorde honen irizpenaren mende jarritako gaiak zehazki aztertu aurretik, Etika eta Jokabide Kodeak exijitzen badu ere interes-gatazkekin lotutako zenbait jokabide, jarrera eta portaera debekatzea edo saihestea, gai horretan indarrean dagoen araudia –zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta haien parekatuek bateratu ezin dituzten jarduerak berariaz arautzen dituen arau juridikoan. Xedapen horretan diziplina- eta zehapen-araubidea aurreikusten da, eta, legezkotasun-printzipioari jarraituz, lege-mailako xedapen bidez araututa dago, zehazki, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean.

Hain zuzen ere, Etika Publikorako Batzorde honek hasiera-hasieratik mugatu nahi izan du bere lana etikaren eremura, eta, bereziki, Etika eta Jokabide Kodeari beren borondatez atxikitzea erabaki duten kargu publikodunek eta parekatuek kodea betetzen ote duten jakiteko irizpenak ematera: Ordenamendu juridiko hori betetzea ez da inolaz ere hutsala, eta, behintzat, batzorde honek ez du bere zeregintzat administrazio-jardun baten legezkotasunari edo, hala dagokionean, goi-kargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoari buruzko epaiak ematea. Horregatik, Etika Publikorako Batzorde hau ez da hasiko aztertzen bere esku jarritako jarduketek araua hausten duten ala ez, interesdunak kontsultan eskatzen duen bezala.

2.- Lege-testu hori azaletik aztertuz gero, ikusiko dugu bateragarritasun-baimenak eta horien kudeaketa eta kontrola Etika Publikorako Batzordeaz besteko organoenak direla lege-testu horren arabera. Horrela, aipatutako legeak eta, zabalago, hura garatzen duen Dekretuak – 156/2016 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Kargu Publikodunen Betebeharrei eta Eskubideei buruzkoa– bateragarritasun-prozedura bat ezartzen dute hemen deskribatutako egõerretarako; prozedura horrek ez du EPB honen esku-hartzea aurreikusten fase bakar batean ere. Izan ere, batzordearen jarduna, administrazio-kudeaketa zaildu ordez, bideratuta dago ea kudeaketa hori legegileak eta Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako printzipio eta balio etikoei egokitzen zaien ebaluatzeraz.

Batzorde honek ezin du bere gain hartu elementuak epaitzeko eta balioesteko eginkizunik, zeinak, eremu subjektibotik kanpo, legeak beste organo espezifiko eta jakin batzuen esku uzten baititu.

Ondorioz, ez dagokio Etika Publikorako Batzorde honi erabakitzea (...) Sailak egindako kontratuen esleipenak goi-kargudun eta zuzendaritza-kargudun publikoen bateraezintasunen alorrean indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratzen duen ala ez.

3.- Aurrekoa esanda, (...)k kontratuen esleipenari dagokionez planteatzen dituen gaiak aztertu behar dira.

Idazkian, bi kontratu txiki aipatzen ditu, hain zuzen, (...)k (...)ri esleituak. (...) ahalordedun izan enpresa horretan, preseski, eta bere erantzukizuna utzi zuenetik bi urte igaro gabe egin ei ziren esleipenak.

Lehen kontratuak erreferentzia egiten dio (...)ren eraberritze- eta birgaitze-obren egikaritze-proiektua berrikusteko eta eguneratzeko laguntza teknikoari; kontratua (...)ri esleitu zitzaion, 2021eko abuztuan; 16.819,00 eurokoa izan zen (BEZa barne).

Bigarren kontratua, enpresa berari esleitu, (...) obren segurtasunaren eta osasunaren arloko zuzendaritza fakultatiboa eta koordinazioari dagokio, 2020ko urrian esleitu; 5.080 eurokoa izan zen.

(...) ahalordedun izan zen (...)n, 2020ko otsailetik urrira bitartean. Hori horrela, (...)k planteatzen du ea neurriak hartu behar diren esleipen horien ondorioz gertakari horietan parte hartu duen pertsonaren aurka, edo, zuhurtasun-printzipioan oinarrituta, (...)k eta, bereziki, (...)k neurriren bat aplikatu behar duen datozen urteetan enpresa horrekin egin litzakeen kontratuetan.

4.- (...)k bidalitako kontsulta jasó ondoren, haren berri eman zitzaion (...)ri, Etika Publikorako Batzorde honetara bidal zitzaizkion kontsultan egiten diren gertakarien eta gogoeten inguruan egoki ikusten zituen adierazpenak eta alegazioak.

5.- Etika Publikorako Batzorde honi haren jarduketak zehazten dituen idazkiarekin batera helarazitako erantzunean, hainbat agiri ere badaude; hauek, zehazki: lan-bizitzaren txostena, (...)ko ahalordedun gisa haren izendapenari eta errelokazioari dagozkion Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialen kopiak (BORME), (...)ko Administrazio Kontseiluko idazkariaren egiaztapen bat, (...) Administrazio Kontseiluaren akta, eta (...) Saileko (...)k sinatutako txosten bat.

6.- Helarazitako informazioari dagokionez, hau adierazi behar da:

(...)k (...)n lan egin zuen 2020ko irailaren 17a arte, eta 2020ko irailaren 18an izendatu zuten (...) Saileko (...).

2020ko otsailaren 26tik urriaren 8ra, enpresa-talde bereko beste merkataritza-enpresa bateko ahalordedun izan zen, (...) izenekoa.

(...) Saileko (...) Zuzendaritzaren txostenaren arabera, hau dio kontratuei buruz:

- (...)ren eraberritze- eta birgaitze-obrei buruzko kontratua (...)ren ebazpen baten bidez esleitu zen, zeinak (...) zuzendariaren ordezkari baitziharduen; Sailaren egitura organikoari buruzko dekretuaren arabera, (...) zuzendariak zuen eskumena, baina, bat etorriz (...)ko sailburuaren uztailaren 14ko Aginduekin, hura ez egotera, (...)ko zuzendariari zegokion sinatzea.
- (...)ko obren segurtasunaren eta osasunaren arloko zuzendaritza fakultatiboari eta koordinazioari buruzko kontratuari dagokionez, kontratua Saileko (...) zuzendariaren

ebazpen baten bidez esleitu zen, bat etorritik egitura organikoari buruzko dekretuarekin.

- (...) bi kasuetako batean ere ez zen izan kontratazio-organoa.

7.- Bestalde, zehaztu behar da (...) (...) Administrazio Kontseiluko kide dela.

(...)k Etika Publikorako Batzorde honi helarazitako agirien artean, (...) Administrazio Kontseiluko idazkariaren egiaztigiri bat dago, zeinetan jasotzen baita, (...)ren kasuan, presidentea dela kontratazio-organoa eta Administrazio Kontseiluari 400.000 euro baino gehiagoko kontratuen berri soilik eman behar zaiola; Administrazio Kontseiluaren eskumenak informazioaren esparrura mugatzen dira.

4.799.785,53 euroko obra-kontratu baten esleipenari dagokionez, zeinaren berri eman baitzitzaien Administrazio Kontseiluari, (...)k abstenitzeko asmoa adierazi zuen interes-gatazka zegoela eta. Hala ere, jakinarazi zitzaion ez zela beharrezkoa abstenitzea, helburua soilik baitzen Administrazio Kontseilua jakitun egon zedin eta ez hark onarpena eman zezala. Balizko interes-gatazka bat egon zitekeela eta abstenitzeko agertutako asmoak erakusten du Etika eta Jokabide Kodea betetzeko duen konpromisoa eta asmoa.

8.- Beste hainbeste gertatzen da (...)ren kasuan, bertako Administrazio Kontseiluko kide ere baita. Kasu honetan, (...)ren Administrazio Kontseiluaren aktaren kopia helarazi digu. Akta horretan, 5. puntuaren arabera, trenbide-ustiaketarako lur zerrenda bat desafektatu eta ondoren jarduketa integratu batean sartu ahal izateko ez-beharrezkotasuna adierazteko proposamenari dagokionez adierazi du bozkatzetik abstenitu dela, urbanizazioa sustatzen duen enpresarekin alde aurretik izan zuen loturarengatik. Berriz ere adierazi du abstenitzeko asmoa, interes-gatazka egon zitekeela uste baitzuen.

9.- Behin aztergaia zehaztaper horietan ardaztuta, Etika eta Jokabide Kodearen 5.2.4 apartatuak, inpartzialtasunari eta objektibotasunari buruzko printzipioetan kokatuta, honako hau xedatzen du: "Kargu publikodunek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera, erabakiak hartzeko prozesuetan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituzten ekintzetan".

Mandatu horrekin estuki loturik, 5.2.7 apartatuak dioenez, goi-kargudunek eta parekatuek "beren funtzioak zuzen betetzea eragotz edo oztopa dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz. Horrek esan nahi du

erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako hartu behar direla, eta horretarako bakarrik, guztiz baztertuz, ebazpen edo erabaki bat erabakia hartu duenaren, haren familiakoen, ezagunen edo lagunaren mesederako hartu dela edo edozein eratako interes partikularrek eragindakoa dela pentsatzera eraman lezakeen susmo edo zalantza oro”.

Aurrekoarekin lotuta, Etika eta Jokabide Kodearen 5.2.1.3 artikulua EAEko Administrazio kargu publikodunek “inpartzialtasun-, zintotasun- eta objektibotasun-printzipioak” nahitaez errespetatu beharri egiten dio erreferentzia: “irizpide independentea izango dute, interes partikular oro baztertuz”. Halaber, “ez dute parte hartuko beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat duten gaian”.

Bide horretatik, Etika eta Jokabide Kodearen 6.a) artikuluan xedatzen da kargu publikodunek ez dutela “jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eraman dezakeen susmorik sor dezakeen ezer”. Are gehiago, 11.3.e) artikuluan hau xedatzen da: “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta bere Sektore Publikoko kargu publikodunek, baldin eta beren betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duen edo egin dezakeen interes-gatazka baten eraginpean badaude, berehala eman beharko diote horren berri Etika Publikorako Batzordeari eta, hala badagokio, euren abstentzioa formalizatuko dute Langileen Erregistro Zerbitzuan, non adieraziko baitute (ahal bada, idatziz) gatazka horren aurrean daudela, edo, behintzat, une horretan edo etorkizunean interes-gatazka bat egon daitekeela pentsatzera daramatzen susmoa dutela”.

10.- Kautela are beharrezkoagoa da Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu ondoren, zeinaren 10. artikuluan, parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra agintzen baitie kargu publikodunei «beren interesak, ezkontide edo izatezko bikotekidearenak edo laugarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatzen dituztenak agertzen edo bultzatzen diren jarduerak, erabaki edo ekimenetan» edo «zenbait enpresa, sozietate edo erakunderen interesak ukitzen dituzten gaian edo gai horien inguruko erabakietan, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organotan kargu publikodun gisa izan badira bai kargu publikodunak berak bai ezkontide edo izatezko bikotekideak edo bigarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak edo berekin interes partekatuak dituzten hirugarren pertsonak».

11.- Etika Publikorako Batzordeak beste behin ekarri nahi du gogora zenbateko garrantzia duen Etika eta Jokabide Kodean aurreikusitako kautela-neurriak betetzeak, lan- edo zuzendaritza-

eginkizunetan aritu diren goi-kargudunen edo parekatuen jarduketei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren goi-zuzendaritzaren zuzentasun eta zintzotasun irudia ez kaltetzeko.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta parekatuek legeak betetzea dakarren portaera etikoaren atalase bat definitzen du Etika eta Jokabide Kodeak. Eta herritar guztientzat komuna den oinarrizko plataforma hori ardatz hartuta, legez ezarritakoak baino zorrotzagoak diren jarrera eta jokabide multzo bat zehazten du. Gehigarri etiko bat taxutzen da horrela, juridikoki eskatzerik ez dagoena –legean ez baitago berariaz jasota–, baina badena Kode Etikoari atxikitakoek bere egiten duten konpromiso politikoaren parte; halako moldez, non Etika Publikorako Batzorde honek hori betetzen den aztertu eta ebaluatu ahal izango baitu, bai eta, hala badagokio, horren gaineko irizpena eman ere.

12.- Etika Publikorako Batzorde honek aurretik ere adierazi izan du goi-kargudunek eta parekatuek interes-gatazka izan dezaketela goi-kargudun izendatu aurretik lan-zerbitzuak eman edo zuzendaritza-eginkizunetan aritu diren sozietateekin kontratuak egin nahi dituztenean Administrazioaren izenean, eta, ondorioz, Etika eta Jokabide Kodearen 11.3 apartatuan aurreikusitako kautela- eta prebentzio-neurriak hartu behar dituztela nahitaez; aipatutako neurri horiek kutsu profilaktiko garbia dute, eta “interes-gatazkak saihestea dute xede, jakina, baina harago ere joaten dira: horrez gain, goi-mailako kargudunen eta parekatuen jardunean interes-gatazka bat sortzeko balizko aukeraren inguruan sor daitezkeen zalantza edo susmo guztiak errotik ezabatu nahi dituzte. Horiek irakurrita, erraz ondoriozta daiteke Etika eta Jokabide Kodeak finkatutako zuzentasun eta desinteres subjektiboko estandarrari dagokionez sor litezkeen desbideratzeak saihestu ez ezik, desbideratzeen balizko existentziaren inguruko zalantza oro ere uxatu nahi dutela”.

13.- Horrela bada, nabarmendu den bezala, ez dagokio Etika Publikorako Batzorde honi erabakitzea ea interesdunak, (...) den heinean, ordenamendu juridikoa urratu duen ala ez, (...) sailak ahalordedun izan zeneko enpresa batei esleitutako bi kontratu txikiei dagokienez.

14.- Aurretik esan dugun bezala, Etika eta Jokabide Kodearen xede da, batetik, guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura ematen duen pertsonaren mesederako dela nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeela pentsaraz dezakeen susmo edo zalantza oro, eta, bestetik, saihestea pertsona edo erakunde publiko edo pribatu jakinen alde edo favoritismo-nahiak eraginda jokatu den susmoa pitzaraz dezakeen oro.



Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren zintzotasun, inpartzialtasun, integritate edo objektibotasunari buruz, abian jartzeko Kodearen 5.2.4 eta 11.3 apartatuek hizpide dituzten kautela- edo prebentzio-mekanismoak, hots, abstentzioa edo, bestela, aldez aurretik Etika Publikorako Batzorde honi galdetzea. Lehen kasuan, Etika eta Jokabide Kodeak ezartzen duenez, goi-kargudunek eta parekatuek, baldin eta gai jakin baten jakinaren gainean ez badaude, haien jardunaren onetasun, osotasun eta objektibotasunari buruzko susmoak edo zalantzak uxatzeko, "hierarkian gainean dutenaren esku utzi behar dituzte beren erantzukizunak, edo bestela, baldintza horien eraginpean ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku". Bigarren kasuan, Etika Publikorako Batzorde honek berak egingo luke dagokion proposamena edo gomendioa, aurrez hala eskatuta.

15.- Kontsulta honetan aipatzen diren kontratu txikien kasuan, (...)k ez zuen parte hartu bi kontratu horietako baten esleipenean ere; lehenengoan, (...) Sailaren Egitura Organikoaren arabera, (...) zuzendariari zegokion esleitzea, nahiz eta, hura ez egotera, (...)k sinatu zuen, bat etorri 2021eko abuztuan sail horretako organoen absentziak arautzen dituen sailburuaren aginduarekin.

Kontsultan aipatzen den bigarren kontratua, Saileko (...) Zuzendaritzak izapidetu eta esleitu zuen.

Dena den, sail bateko kargu publiko bat enpresa batean ahalordedun izan izanak ez du esan nahi sail horrek ezin duenik inongo kontrataziorik egin enpresa horrekin, baldin eta, betiere, kargu publiko horrek ez badu inola ere esku hartzen kontratuaren izapidetzean eta esleipenean.

16.- Bestalde, azpimarratu behar da (...)ren iritziz kontratazioaren arloko bateraezintasunen bat egon zitekeen bi kasu horietan, abstenitzea eskatu duela (nahiz eta kasuetako batean adierazi zitzalon ez zuela zertan abstenitu, (...)ko Administrazio Kontseilua, zeinetan berak parte hartzen duen, ez baita kontratazio-organoa; aitzitik, 400.000 euro baino balio handiagoko kontratuen berri eman baino ez du egin behar); (...)ren kasuan, abstentzioa formalizatu zuen, eta horrek adierazten du Etika eta Jokabide Kodean xedatutako betetzeko duen kezka eta interesa.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

**ERABAKIA:**

**LEHENENGOA.-** (...)k ez du urratu Etika eta Jokabide Kodea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bi kontratu txiki esleitzeagatik.

**BIGARRENA.-** Etika eta Jokabide Kode honek sarritan jada adierazi duena gogoraraztea: arrazoiak arrazoi, (...) gisa esku hartu beharko balu –kontsulta nahiz erabakitzailea– erantzukizunak izan dituen sozietateekin lotuta, abstenitu egin beharko du, eta hierarkian gorago dagoenari edo, hala badagokio, gorabehera horiek eragiten ez dioten saileko edo erakundeko beste kargu publikodun bati eskualdatu beharko dizkio erantzukizunak, edo Etika Publikorako Batzordeari kontsulta egin beharko dio.

**Olatz Garamendi Landa**  
**Etika Publikorako Batzordeko burua**  
**Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 20a.**